

*Isabel Etxebarria*

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Estatuaren kohesioa

**G**ipuzkoak gure esperantza darama. Bildu agintean izaki, euskararen alde egiteko inoiz ezagutu ditugun baldintza onenak ditu. Gipuzkoak lerro nagusia markatuko du, eta euskararen etorkizunaren parte handi bat bideratuko du. Konfiantza handia dugu Gipuzkoako euskalgintza oso arduratsua eta kementsua baita aspaldidanik. Denon onerako. Zazpi herrialdeentzako. Gipuzkoak euskaraz bizitzeko behar ditugun tresnak errealitatera ekarriko ditu, nonbait burujabetzarako lehen urratsak.

Garrantzi berezia du aldaketak Ipar Euskal Herrian bizi garenontzat, bizi dugun hizkuntzarekiko zapalketa ez baita murrizten, aitzina jarraitzen baitu. Noski, egia da euskaraz eta euskara ikasten duten ikasleen kopurua sekula baino handiagoa dela. Gizartea haatik, frantsesez bizi da.

Errealitate horri aurre egiten diogu eta ez dugu amore ematen, baina Parisetik ere indarka ari dira. Aurten Baxoa euskaraz aurkezteko aukera izanen zela erran zigiten. Promesa ez da gauzatu.

Lehen aldikoz Frantziako Senatuan hizkuntza gutxituen aldeko legea aipatua izan da



GAIZKA IROZ



Lehen aldikoz Frantziako Senatuan  
hizkuntza gutxituen aldeko legea  
aipatua izan da aurten. Gaia inoiz  
ez zen horretaraino heldu. Uler  
daiteke aitzinamendua dela.

Horrela hartuko dugu



aurten. Gaia inoiz ez zen horretaraino heldu. Uler daiteke aitzinamendua dela. Horrela hartuko dugu.

Dena den, indar harremanaren jokoa hautatu du gobernuak, denbora irabaztearren.

Mayotte (itsasoz haraindiko) departamenduan frantsesa inposatzeko gobernuak erabaki duen politikak –bertako hizkuntzaren gaintetik, bozek departamendu frantsesa izatea erabaki dutelako– seinalatzen du frantses hizkuntzaren garrantzia estatuaren kohesiorako. Hau da, Parisi begira bizi den estatua, hizkuntza bakarraren bitartez Estatuko herri gutxiuak estekatuz.

Frantses gobernuak hurbil-hurbiletik jarraitzen dute Ipar Euskal Herria. Duela hogeita hamar urte, departamendua agindu zigun orduko presidentek. Gaur egun lurraldetasunaren erreformarekin gure izaera desagertzen da, ezabatzen gaituzte. Gaurko presidentek hizkuntza gutxituentzat lege bat agindu zuen. “Hitza hitz” eskatzen dugu, haatik ez du horrek oihartzunik Parisen.

Euskalgintzak urrats berriak iragarri ditu lege gerizaren alde. Martxorako pentsatua da manifestaldia. ■

## HIRUKO TXIKIAN

*Joxemari Ostolaza*



zelai bitan. Real Madrileko Casillasi Iker bere izena, bere aita guardia zibila País Vascon destinatuta zegoelarik jarri omen zioten, eta horrek kirol kazetarien artean balio erantsia ematen dio zurien kapitainari. Izan ere, irudi luke Espainia aldean hemen ibilitako guardia zibilak, poliziak, militarrek heroiak direla beren inguru hurbilenetan bereziki, hau Afganistan edo bailitzan. Eta Ikerrek, bere izena tatuaje, hori gogorarazten omen die kirola ez dela politikaz nahasi behar sutsu defendatzen duten kazetariei. Ez da Eñauten kasua. Bere aita, Kandido Zubikarai onda-

### Bi atezain

rrutarra kartzelan dute joan den hogeita bi urteetan ETako militante izatearen akusaziopean. Eta, nik dakidanez, hau ez da Afganistan, hemengo kirol kazetariak ez dute Eñauten drama inongo balio erantsitza erabili, eta nago, ezkutuki ere ez diotela hitz lasaigarri askorik esan, kirola ez dela politikaz nahasi behar horrek, gurean ere baduela tokirik. Baina mendi oro ez da baratz, eta Eñautek sekulako maitasuna jasoko zuen bizi zelaientan, kirol kazetari eta zuzendaritzek bizi ez dituzten horietan, Alacant eta Alicante bereizteko gauza direnetan. Herculesek galdu du atezain on baten aukera, hau guardia zibilaren semea ez delako. ■